

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2016ko UZTAILAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko uztailaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2016ko maiatzaren 30ean egindako ez ohiko bilkura./ Sesión extraordinaria de fecha 30 de mayo.**
 - **2016ko ekainaren 2an egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria de fecha 2 de junio de 2016.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Larraulgo Sorozelai 40 ezk. Itxitura bat jartzeko obra baimena eskaera, J.L.D.M./Solicitud de licencia de obras para cerramiento en Sorozelai 40 izq. De Larraul, J.L.D.M.**
- 4. Larraulgo Larrola baserriko lurretan dagoen txabola handitzeko obra baimena eskaera, M.K. T./ Solicitud de licencia de obra para ampliación de chabola en terrenos del Caserío Larrola de Larraul.**
- 5. Hirigintza kontsulta: Sorarrain handi baserria berreraikitze, J.I.A./Consulta urbanística, sobre posibilidad de rehabilitación del Caserío Sorarrain haundi de Larraul, J.I.A.**
- 6. Lankidetzeta-hitzarmenaren onespena, Larraulgo Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artekoa, informazioaren,**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko./ Aprobación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Larraul y la administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión electrónica.
7. 2017 urterako Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aldaketa, hala bada./ Modificación del Impuesto sobre Bienes Inmuebles para el ejercicio 2017.
 8. 2015-2016 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala bada./ Aprobación de las bases de regulación de las ayudas económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2015/2016.
 9. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
 10. Beste batzuk/Otros.
 11. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
 - 11.1."Tolosaldea Osasungintza ereduaz idatziari atxikimendua/ Adhesión al escrito" Tolosaldea Osasungintza erduaz".
 - 11.2. "Nekane libre" Plataformari atxikimendua./Adhesión a la plataforma "Nekane libre".
 - 11.3. Diru Laguntza lerro berezi eta berbera baten aldarrikapena./ Reivindicación de una única e igual línea de subvenciones.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2016 urteko maiatzaren 31ko Udalbatzaren Ez-ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- ▣ 2016 urteko ekainaren 2ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.


BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

16/2016 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 28koa, Eba Erkizia Brion Udal Arkitektoak prestaturiko Larraulgo Udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea izeneko proiektua onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO SOROZELAI 40 ezk. ITXITURA BAT JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.L.D.M.

Ikusirik J.L.D.M. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Sorozelai 40 ezk. Etxebizitzan, itxitura bat jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2016ko uztailaren 4an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO SOROZELAI 40-ezk. ETXEKO HARRIZKO EUSTE HORMAREN GAINEAN ITXITURA EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*J.L.D.M. jaunak, Larraulgo Sorozelai 40 ezkerreko etxearen lursailaren alboko eustormaren gainean itxitura metaliko bat jartzeko baimena eskatzen du, itxituraren ezaugarriak azaltzen dituen krokis bat eta egin beharreko lanen aurrekontua aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako eskarian, Ostatu-zahar eta Sorozelai 40 etxeen arteko lursailen artean egin nahi den itxituraren ezaugarriak deskribatzen dira.

Itxitura honek 26m-ko luzera izango du, oinarria blokezkoa izango da eta gainean 1,10m altuerako hesi metaliko bat eramango du. Azpialdeko blokea, harriz estaliko da eta hormigoi aurrefabrikatuzko erremate bat izango du gailur moduan.

Baimenaren eskatzaileak, Ostatu-zahar aldeko oinarriaren altuera 40zm izango dela adierazten du. Lan hauen aurrekontua 1.740€ da.

Sorozelai 40 ezk. etxea, Larraulgo lur hiritargarriaren barruan kokaturik dago, bereziki A.I.U. 1.2 LARRAULGO HERRIGUNEaren unidatean.


Lur hiritargarrian lursailen itxiturak arautzen dituen 38^a artikulua, gainera honela dio:

“Artículo 38.- Cierres de parcela.

Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50 mts.

Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20 mts.

Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.”



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aurkezten den proposamenak Larraulgo araudiarekin bat egiten du, beraz udal baimena ematea egokia iruditzen zait.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA: J.L.D.M. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, non Larraulgo Sorozelai 40 ezk. Etxebizitzan harrizko euste hormaren gainean itxitura bat egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO LARROLA BASERRIKO LURRETAN DAGOEN TXABOLA HANDITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, M.K.T.


Ikusirik M.K.T. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Larrola baserriko lurretan dagoen txabola handitzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Larraulgo Udalak Larraola baserriko lurretan dagoen txabola handitzeko obra baimena eman aurretik, Larraulgo Arau Subsidiarioetan agertzen den modura Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentuko on iritzia izan behar duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Larraulgo Larrola baserriko lurretan dagoen txabola handitzeko obra baimena eman aurretik M.K.T.andreak Udaletxe honetan aurkeztutako dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentura igorri, azken honek dagokion txostena egin dezan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BOSTGARREN PUNTUA

**HIRIGINTZA KONTSULTA: SORARRAIN HANDI BASERRIA
BERRERAIKITZEKO J.I.A.**

Ikusirik J.I.A.I. jaunak eginiko hirigintza kontsulta, Larraulgo Sorarrain handi baserria berreraikitze aukerari buruzkoa.

Ikusirik, 2016ko uztailaren 6an Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

**“LARRAULGO SORARRAINAUNDI BASERRIA eta GOIKO SOROAN ZEGOEN
BORDA BERRERAIKITZEKO AUKEREI BURUZKO HIRIGINTZA
KONTSULTARI ERANTZUNA**

*J.I.A.I. jaunak, Sorarrainaundi baserria eta Goiko Soroan zegoen borda berreraikitze aukerei buruzko hirigintza kontsulta eskatzen du, erregistroko dokumentuak aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako dokumentazioaren arabera **Sorarrainaundi baserria** sute baten ondorioz desagertu zen. Sutearen data ez da zehazten.*

Gaur egun Sorarrainaundi baserrian zegoen kokapeneko albo batean borda bat dago. Borda honek baserri zaharraren 2 pareta erabiltzen ditu fatxada moduan. Pareta berriak blokezkoak dira. Eraikina errektangeluarra da, oin bakarrekoa eta bere batazbesteko azalera 170m²-ko izanik. Teilatua teila gorrizkoa da, ur batekoa.


Foru Aldundiko argazki historikoetan 1983-an baserria dagoela ikusten da. Hurrengo argazkia 1997koa da eta bertan oraingo borda ikusten da.

*Eskarian ere, **Goiko Soroan zegoen borda** orain erorita dagoela azaltzen da. Foru Aldundiko argazki historikoetan 2011 inguruan desagertu zela ikus daiteke.*

Galdeketa egiten diren bi eraikinak (edo eraikinen arrastoak) Larraulgo lur ez-urbanizagarriaren D.20 produkzio zonaldean kokaturik daude. Hau honela izanik, lur ez urbanizagarriaren ordenantzak erabiliko ditugu.

Larraulgo Hiri Antolaketako Arauen 56º artikulua honela dio;

Artículo 56.- Edificios consolidados y fuera de ordenación en el Suelo No Urbanizable. Todas aquellas construcciones incluidas dentro del Suelo No Urbanizable de Protección quedan fuera de ordenación, exceptuando aquellas que por su vinculación con los usos propiciados y admisibles en cada zona puedan ser permitidas.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

En el resto del Suelo No Urbanizable se consolidan las edificaciones existentes, incluyendo aquellas con parcelas iguales o inferiores a 20.000 m² si bien éstas no podrán ser objeto de segregaciones.

Kontsolidatutako eraikinak izanik, Larraulgo araudiko 66º artikulua baserrietan eraberritzeak eta erreformak onartzen ditu ondorengo baldintzekin;

Artículo 66.- Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

La reforma y rehabilitación de caseríos será la opción utilizada preferentemente en todos aquellos casos en los que haya una construcción rural ya existente.

1.- Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.- Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.

Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.

Los materiales exteriores respetarán en todos los casos lo que dispone el art.49 de las presentes ordenanzas pudiendo sustituir los elementos exteriores como carpintería, cubierta, etc. pero manteniendo en todos los casos el aspecto general y los elementos singulares del caserío primitivo.

3.-La rehabilitación integral del caserío conllevará la desaparición de txabolas, anejos y tejabanas de forma que mejoren tanto la funcionalidad del edificio en relación con la explotación agraria como su aspecto exterior.

4.-Número máximo de viviendas.

El número máximo de viviendas que podrá albergar el caserío rehabilitado será de cuatro, y una vez construidas se deberán inscribir en el Registro de la Propiedad como vinculadas a la correspondiente explotación agrícola e inseparable de la misma, ajustándose a los siguientes criterios:

- Número máximo de viviendas permitidas: 4


- Superficie construida mínima por cada vivienda: 150 m² (s)

No se computarán a estos efectos otras viviendas existentes en el mismo edificio no adscritas registralmente a la explotación.

5.-Ampliaciones singulares del caserío primitivo.

Se podrán realizar obras de ampliación del caserío siempre y cuando los mismos queden adosados a él y no desdigan de la composición del edificio primitivo. La ocupación en planta de la ampliación más la superficie existente no podrá ser superior a 300 m²(s).

Larraulgo araudiak Euskal erkidegoko 2/2006 Lurzoruari eta hirigintza buruzko Legearekin bat egin behar du. Lege honen 30º artikulua honela dio:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Artículo 30.– Reconstrucción de caseríos y su autorización.

1.– Sólo será autorizable la reconstrucción de los caseríos que mantengan una estructura edificada que permita identificarlos como tales. **En ningún caso podrán ser objeto de reconstrucción los restos de muros de edificaciones que no alcancen la cumbre de las primitivas** y, en general, cuantos restos no permitan conocer la planta general del inmueble original ni permitan reconocer su volumetría original.

2.– No obstante, podrá autorizarse la reconstrucción de los caseríos y edificaciones residenciales en suelo no urbanizable que hubieran resultado inservibles por caso fortuito o fuerza mayor debidamente acreditada, o cuando hubieran sido demolidos por causa de expropiación forzosa debida a la implantación de sistemas generales.

La reconstrucción habrá de instarse por el solicitante a la administración municipal dentro del año siguiente a la causa que provocó que quedara inservible_o, en su caso, desde la efectiva ocupación expropiatoria.

En este último supuesto expropiatorio, la reconstrucción podrá realizarse en suelo no urbanizable que no sea de especial protección.

3.– La obra de reconstrucción en todo caso deberá respetar, como máxima, la composición volumétrica del inmueble original.

4.– El otorgamiento de licencia para las obras de reconstrucción de caseríos requerirá:

a) Sometimiento del proyecto a información pública por plazo mínimo de veinte días.

b) En los supuestos de reconstrucción por causa de caso fortuito, fuerza mayor u ocupación expropiatoria, se recabarán los informes pertinentes de los organismos o instituciones que hubieran intervenido o tuvieran conocimiento de los hechos y circunstancias que hacen posible autorizar la reconstrucción.

5.– En ningún caso se podrá considerar como rehabilitación de caseríos la reforma o rehabilitación para uso residencial de edificaciones situadas en suelo no urbanizable que no hubieran sido legalmente destinadas a usos residenciales con anterioridad. Dichas obras se considerarán como nueva edificación destinada a vivienda, y quedarán sometidas al régimen jurídico que para las mismas se establece en esta ley.

105/2008, ekainaren 3ko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko Dekretuaren 9º artikulua baserritzat zer ulertu daitekeen argitzen du.


Artículo 9.– Caseríos. Definición y régimen autorización de reconstrucción

1.– A los efectos de lo dispuesto en el régimen del suelo no urbanizable en los artículos 29.1 y 30 la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, se entenderá por caserío los edificios que cumplan acumulativamente todas las siguientes condiciones:

a) Constituirse como tipo edificatorio aislado, con uso predominante de vivienda.

b) Disponer de por lo menos una vivienda ya existente, todo ello según lo dispuesto en el Registro de la Propiedad en cada uno de ellos.

c) Disponer de licencia de primera ocupación o de documento que deje constancia de modo fehaciente de su efectiva ocupación residencial con anterioridad al 1 de enero de 1950.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

d) Reunir aquellas características adicionales que establezca el Ayuntamiento en su planeamiento urbanístico o en la correspondiente ordenanza municipal.

2.- Sólo será autorizable la reconstrucción de los caseríos que mantengan una estructura edificada que permita identificarlos como tales. En ningún caso podrán ser objeto de reconstrucción los restos de muros de edificaciones que no alcancen a definir la posición original de la cumbre de las primitivas y, en general, cuantos restos no permitan conocer la planta general del inmueble original ni permitan reconocer su volumetría original.

Beraz, aurreko artikuluen arabera:

- *Gaur egun Sorarrainaudiko kokapenean dagoen eraikina kontsolidatua dago eta eraberritu daiteke, beti ere gaur egungo bolumena mantenduz. 105/2008 dekretua jarraituz, etxebizitzaren erabilera onartu daiteke.*
- *Goiko Soroako borda 2011tik desagertua dagoenez ezin da berreraiki.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: J.I.A.I. jaunak eginiko hirigintza kontsultari erantzutea, Udal Aholkulari Teknikoak uztailaren 6an eginiko txostenean dioena.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.


HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

**LANKIDETZA-HITZARAMENAREN ONESPENA, LARRAULGO
UDALAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAREN ARTEKOA, INFORMAZIOAREN,
ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOAREN
ESPARRUKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO**

Ikusirik Larraulgo Udalaren eta Euskal autonomia erkidegoko administrazioaren arteko Lankidetzaz-hitzarmena prestatua dagoela, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

Ikusirik, Larraulgo Udala interesatuta dagoela aipaturiko Lankidetzaz-hitzarmena onesteko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalaren eta Euskal autonomia erkidegoko administrazioaren arteko Lankidetzeta-hitzarmenaren onespena, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoen esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

BIGARRENA: Aneli Urbieta Etxeberria, Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakari andreaki aipaturiko hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazio sailari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2017 URTERAKO HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN ALDAKETA, HALA BADA

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak Balio katastralaren berritze prozesu bat egin duela, 2017 urtean indarrean sartuko dena.

Ikusirik, aipaturiko balio katastral huen berritze prozesuekin Udalei aukera eman diela ondasun higiezinaren gaineko zergaren tipoak aztertzeko eta dagokiona onesteko.

Ikusirik Larraulgo Udalak, aipaturiko ponentziak aztertu ondoren, gaur egun onartutik duen tipoa jaistea komeni dela iruditzen zaiola.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2017 urtean, Gainerako Hiri ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatuko zaion Karga tasa %0,23 izatea.

BIGARRENA: Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2015-2016 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andreak 2015-2016 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- 2015-2016 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BULEGOAK	193,30
AMONARRIZ ITURGINTZA	426,50
GIPUZKOAKO URAK	4.248,12
MANPEL	47,19
FERRETERIA BARBE	122,79
JOXAN ALTUNA	252,10
EBA ERKIA	700,26
TOLOMENDI	152,50
AITZOL	56,84
KIROLZER	54,10
GIPUZKOAKO URAK	4.555,57
IZFE	1.900,08
BERRI LANTEGIAK	61,40
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	291,90
BELAKO	60,00
MANPEL	103,82
IZFE	1.900,08
SOROA ARQUITECTOS	562,93
CORREOS	3,52
LIDOINSA	992,20
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	450,21
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.005,15
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	958,28



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	998,45
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.025,72
AITZOL	73,08
EBA ERKIZIA	959,96
IBERDROLA	213,82
IBERDROLA	134,48
IBERDROLA	43,81
IBERDROLA	170,05
IBERDROLA	170,67
IBERDROLA	27,99
MOVISTAR	18,79
MOVISTAR	52,58
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	54,11
MOVISTAR	53,86
MOVISTAR	18,15

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **23.264,24** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

10.1.HERRIKO JAIETAN “TIRO PICHON-eko” POSTU BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERA, HALA BADA


Ikusirik J.D.D.S. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen “Tiro Pitxon” postu bat duela eta San Esteban festetan, aipaturiko postua jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.D.D.S. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, San Esteban jaietan Tiro-pitxon-eko postu bat jartzeko baimena ematea.

BIGARRENA: J.D.D.S. jaunari jakinaraztea, Larraulgo Udaleko Alkatearekin, festaren hasieraren aurretik egon beharko duela, postuaren kokalekua zein izango den jakiteko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Interesatuari erabaki honen berri ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

11.1. TOLOSALDEA OSASUNGINTZA EREDUAZ MOZIOARI ATXIKIMENDUA

Ondoren Tolosaldea Osasungintza Ereduaz mozioa aurkezten da, non ondorengo dioen:

“Tolosaldea osasungintza ereduaz

2011tik Euko Jaurlaritzak lankidetzaren hitzarmen bat eduki du Inviza ospitale pribatuarekin (Asuncion klinika aurrerantzean) Tolosaldeko ospitale erreferentziala izateko. Nahiz eta Jaurlaritzatik informazio gehiegi ez helarazi, behin baino gehiagotan salatu dugu osasun arreta izaten ari den gainbehera etengabea.

Honetaz gain, bost urte luze hautean, ezagunak izan dira Asuncion Klinikak historikoki duen lau milioi euroko zorra ez ordaintzeko egindako trikimailu mordoa. Hemen ere argi eta garbi utzi dugu gure osasun arreta erdigunean egon behar duela eta ez irabazi ekonomikoen menpe.


2017ko azaroan Jaurlaritzak Asuncion klinikarekin duen hitzarmena bertan behera geratzen da. Momentu historiko baten aurrean gaude. Tolosaldeko herritar eta eragileok sekulako aukera dugu eskualdean nahi dugun osasun arreta erabakitzeko. Urte luzez eskatu dugu eskualdeko eragilez osatutako mahai bat osaketa eta Jaurlaritzak behin eta berriaz ateak itxi dizkio aukera honi.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Tolosaldeko herritar eta eragileon bizkar, aldebakartasunez osasun sistema pribatua erdigunean duen sistema bat inposatu nahi digu berriaz ere. Hasieratik gure ezezkoa adierazi genion aukera honi eta orain, bost urte geroago egoera hau luzatu nahiko dute Lakuatik.

Horregatik, ondoko eskaera hau egin nahi dio LARRAULGO udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

1.- Mahai gainean jar ditzala bost urtez indarrean egon den konbenioaren balorazio tekniko zein ekonomikoa xehetasun osoz balorazio osatu bat egiteko aukera izateko.

2.- Ireki dezala prozesu partehartzaile bat eskualdeko udal eta herri eragileekin denon artean aurtengo azarotik aurrera jaso nahi dugun osasun arreta denon artean erabakitzeko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.- *Mozio hau Tolosaldeko ESiko zuzendariari, Osasun kontseilariari eta Legebiltzarreko Osasun batzordeari helaraziko zaio.*”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Tolosaldea Osasungintza ereduaz Mozioa bere osotasunean onesten du.

11.2.LARRAULGO HERRITARRAK UDAL TALDEAK AURKEZTURIKO ADIERAZPENA: NEKANE LIBRE PLATAFORMARI ATXIKIMENDUA

Ondoren Larraulgo Herritarrak Udal Taldearen adierazpena aurkezten da, Nekane libre plataformari atxikimendua, non ondorengo dioen:

“Larraulgo Herritarrak Udal Taldearen adierazpena

Aiztondoko hiritarra den Nekane Txapartegiren atxiloketa eta estradizio arriskuaren berri izan du Udal honek. Nekaneren giza eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko Nekane Libre! Plataforma sortu denez, Larraulgo Udalbatzak zeraerabaki du:


- *Nekane berak nahi duen lekuan, nahi duen pertsonekin (bere alabarekin bereziki) bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, beraz Espainar enestradizio eskaerari ezezkoa emateko eskatzen diogu Suitzako erakundeei.*
- *Nekane egindako tortura salaketak ikertuak izateko deialdia egitea.*
- *Nekane Libre plataformaren helburuekin bat egitea.*
- *Erabaki honen berri Larraulgo biztanleei ematea eta Plataforma burutzen ari den sinadura bilketan parte hartzeko gonbitea luzatzea.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Larraulgo Herritarrak Udal Taldearen adierazpena, Nekane libre Plataformari atxikimendua, bere osotasunean onesten du.

11.3. DIRU LAGUNTZA LERRO BEREZI ETA BERBERA BATEN ALDARRIKAPENA.

Ondoren Aiztondo Mankomunitateko ordezkari Kultur Teknikariak aurkezturiko idatzia aurekezten da, non ondorengo dioen:

“Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Sistema (Gaztematika) inplementatzen hasi ginenean helburu nagusienetako bat zen Gipuzkoako haur, nerabe eta gazte guztiei bizitzaz disfrutatzeke eta jendartearen modu egokian integratzeko aukera berdina ematea. Horrek esan nahi du lurralde osoan –herri handi zein txikitan bizi– haur eta gazteek zerbitzu eta sustapen eskaintza berdintsuak izango dituztela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Helburu nagusi horrekin lanean hasi ginen, eta 1000 biztanle baino gutxiago dituzten herrien arteko lan talde bat osatu genuen haur eta gazteen sustapena bultzatzeko. Bi erakundeen (udalak eta aldundia) sustapen arloetatik bideratutako baliabideak nahiko ez zirela ikusirik, elkarlanerako lagunak bilatzen hasi ginen. Horrela jaio zen Aldundiko Berdintasun arloarekin batera garatutako “Txikiak Berdinbidean” proiektua. Egitasmo horren bidez Herri txikietan bi arloen arteko (sustapena eta berdintasuna) elkarlanerako eremuak eta bideak aztertu, eta abian jarri genituen. Proiektu horretatik ateratako ondorio nagusietako bat da herri txikietan haur, nerabe eta gazteen sustapena lantzeko premia dagoela, eta horretarako baliabide gehiago behar direla.

Errealitate hori ikusita, eta landa eremuko haur eta gazteak herri horien etorkizuna direla kontutan harturik, herri txikietan haur eta gazteentzako kalitatezko zerbitzuak eskaintzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Herrietan bertan zerbitzuak eskaini beharko genituzke gazteak herrietatik alde ez egiteko. Zerbitzu horien bidez ere landuko genuke haur eta gazteen artean herritartasun aktiboa, herri bizitza berpizteko oinarri izango dena.

*Horrekin guztiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak legegintzaldirako diseinatutako plan estrategikoko helburuetako bat izanik “**Landa ingurunean hiri ingurunearen antzeko zerbitzuak (integralak) eta gizarte ongizatea lortzea, biztanleria eusteaz gain, landa eremuak erakargarri eta lehiakor egiteko**”, taldea osatzen dugun herriek Aldundiari eskatzen diogu gure errealitatera egokitutako lan harremana bultzatzea. Horretarako bide interesgarri bat izan daiteke Aldundiko sail ezberdinetatik herri txikietara zuzentzen diren laguntzak aztertu eta bateratzeko aukeren inguruko hausnarketa egitea.”*


Ondoren Asensio zinegotziak hitza hartzen du galdetzeko ea aurkezturiko idatzia zeinek hartzen duen bere gain.

Larraulgo Herritarrak Udal taldeak bere gain hartzen duelarik, diru laguntza lerro berezi eta berbera baten aldarrikapena.

Aipaturiko idatzia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botoak: Urbietta, Jauregi, Leon, Pizarro, Serrano eta Sarria Alkate/zinegotziak.
- Kontrako botoak: Ez daude.
- Abstentzioak: Asensio zinegotzia.

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengo absolutuz, “Diru laguntza lerro berezi eta berbera baten aldarrikapena” idatzia bere osotasunean onartzen dute.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA